

## **BEZERO KANALAK**

Zerbitzu hau eskaintzeko lokal bat erosi dugu, hau Caceresen dago kokatuta. Lokal hau erosteaz gain, beste leku batzuetatik ere eskaini ditzazkegu zerbitzuak.

Gure bidai agentzia ezagutzara emateko, publizitatea egin dugu. Hainbat iragarki egin ditugu telebistan, aldizkari eta eguneroko desberdinetan eta kaleetatik ere jarri dugu agentziarekin kontaktuan jartzeko informazioa, interesatzen zaionarentzat.

Iragarki hauetan agentziari buruzko informazio labur eta orokorra jarri dugu, agentziaren izena, ze lekuetan kokatzen den, sare sozialen izenak, posta elektronikoa, mugikorra eta web-aren izena.



Gure agentzia lokal batean, bulegoan, eta denda fisikoaren partean egondo da, helbidea; PLAZA DE LA CONCEPCION, 2 - BJ, 10003, Caceres (Cáceres). Gurekin harremanetan jartzeko, baliabide desberdinak ditugu; hauek dira: Gure gmaila ([S.Koopagentzia@gmail.com](mailto:S.Koopagentzia@gmail.com)), gure mugikorra; **943 67 89 01**, eta gure sare sozialak. Kontuak ditugu hainbat sare sozialetan: Instagram, Tiktok eta Twitter, gure sare sozialeko izena **@kolibriab** da, eta hortik ere egongo da aukera gurekin kontaktatzeko. Gainera deskontuak eskaintzen ditugu 5 urte baina txikiagoak diren haurrei, deskontu hau %25koa da.

Behin bezeroak gure agentziarekin kontaktuan jartzean, bien arteko komunikazioa hainbat eratakoa izan daiteke, hainbat komunikazio-metodo baiditugu. Lehenik eta behin, hauek agentziara etor daitezke eta aurrez aurre harremandu. Behin bezeroek egin nahi duten bidaiaren beharrezko informazio guztia eman digutenean (bidai datak, aurrekontua, zenbat kide...) bi aukera desberdin prestatuko ditugu bezeroarekin adostutako epe txiki batean, eta noski beraien beharretara egokitutako bidaiak.

Bezeroek ezin izango balute, edo ez nahi badute, pertsonalki gure agentziara etorri, hainbat komunikazio bideen arabera harremantzeko aukera dago. Beste bide hauek erabiliz, prozedura desberdina izango da. Bezeroek dei diezagukete, eta gure beste bidez idatz diezagukete. Guk lanorduetan bakarrik erantzungo dugu. Deitzen duten bezeroei bidai mota jakiteko beharrezkoak diren galdera guztiak egingo zaizkie, eta bideodeian, deian edo aurrez aurre hitzordua emateko aukera eskainiko zaie 5 eta 15 egun bitarteko epean. Idazten diguten bezeroei inprimaki bat bidaliko diegu, bete beharreko jarraibide berberak galdetuz. Betetzen duten egunetik aurrera, hainbat aukera dituen erantzuna bidaliko zaie, deitzen duten bezeroen epe berean, 5 eta 15 egun bitartean.

Kasu guztietan ordainketaren arduradunaren NANA eta ordainketa bera, aldeztu aurretik eskatuko ditugu, gure lan-denbora alferrik galtzen ez dugula ziurtatzeko.



Behin bidai guztia bezeroekin adostuta dagoenean, hauek ordaintzeko modu asko izango dituzte. (PayPal, Visa, Visa Elektron, Mastercard, American Express, Bizum...) Garbi utzi behar dugu bidaia joan aurretik guri dena ordainduta utzi behar

digutela.